

HERRI BATZARRAREN akta (2017/10/21)

1.- Ekaineko batzarraz geroztik Udalak emandako pausoak

- Goieki: aholkularitza batek egindako lanketaren ondoren, hurrengo Goiekiko batzarrean onartuko dute Itsaso kide moduan (azaroan).
- Goierri fundazioa: Goiekirekin bezala, eskaera eginda dago eta hemen ere azaroan Itsaso, kide moduan, onartua izango da.
- Redesa hitzarmena: hitzarmena adostuta dago eta 9000€-ko kopurua jasoko da (epe laburrean sinatuko da).
- Udalekuak ume eta gazteentzat: Herriko haurrez gain, Ormaiztegiko eta Gabiriako banaka batzuk parte hartu zuten udalekuetan. Guztira 21 izan ziren eta balorazio oso positiboa egin zen.
- Udal kirol jardueren antolaketa: Bost jarduera desberdin jarri dira martxan: zunba, pilates, frontenis, dantza eta mendi irteerak eta paseoak.
- Ariolako bidea: Aurten hormigoitutako zatia Kizkitzako bidegurutzerainokoa izan da.
- Eztalagoiti eskoilera: Lanak hasita daude eta datorren astean amaituko dira.
- Kanposantuko baranda: Kanposantu barruko eskaileretan barandak jarri dira eta iturri bat jartzeko asmoa dago. Ur hodiak pasata daude eta iturria jartzea litzateke. Sartu eta ezkerrean geratzen den paretan jarriko da.
- Parrokiarekin hitzarmena: Koru azpia, erretaula, argiteria: Parrokiarekin egindako hitzarmena dagoeneko ordaindu da, koru azpiko gunean itxidura egiteko gortinak jarri dira eta argiteria, momentuz, led barra batekin jarrita dagoena, osatzeko asmoa dago, eta beste bi jartzearekin nahikoa dela aipatzen da.
- Alegiako bilera: parke berria, oinezko irteera Irizar-era: Alegiako bileran azaldutako parkearen planoak erakutsiz, Gabiriakoak diren etxeen ondoko espaloari jarraipena eman, Aroztegi pareraino, hemen zebrabidea errepidea gurutzatzeko eta beste aldera pasatutakoan, Irizar lantegira doan espaloiarekin bat egin. Markesinak non egongo lirakeen ere aipatzen da eta autoen irteerarako gaur egun dagoen 3. karrila mantentzea egongo litzatekeela. Obra hau Gabiriako Udalarekin batera bideratu beharrekoa da eta Foru Aldundiak gauzatuko du.

2.- Entitateen Erregistroan dugun auziaz Foru Aldundiarekin izandako azken bileraren berri

Aldundian izandako bileraren aipamenaz gain, Aldundiko Arlo Juridikotik jakinarazpen bat bidali zuten Zuzendaritza tekniko guztietara, Itsaso eta Ezkio bi Udalerri moduan tratatu behar dituztela berretsiz eta irakurri da. Besteak beste aipagarrienak

ITSASO ETA EZKIO, BEREIZITAKO UDALERRIAK

....gogorarazten dizuegu ezen 2016/12/21eko GAOn (240. zk.) abenduaren 20ko 27/2016 FORU DEKRETUA, Itsaso Ezkio-Itsaso udalerritik banandu eta udalerririk independente gisa eratzea onartzekoa, argitaratu ostean eta, batez ere, 2017ko urtarrilaren 13an Itsaso udalerririk zuzendu eta bere gaiak kudeatzeko Batzorde Kudeatzailea eratu ostean, Ezkio eta Itsaso bi udalerririk bereizi direla eta udalerririk bereizitzat hartu behar ditugula Foru Aldundiaren eskumenekoak diren gaietan eta oso-osorik bere esku daudenetan.

Jakina denez, Itsaso Ezkio-Itsaso udalerririk banantzea auzipean dago une honetan, 2 fronte desberdinetan:

1.- **EAEko Justizia Auzitegi Nagusian**: 27/2016 Foru Dekretuaren kontra Estatuko Administrazioak jarritako errekurtsoa aztertzen ari dira. Edonola ere, Estatuko Administrazioak ez du foru dekretuaren eraginak etetea eskatu. Beraz, 2016/12/22az geroztik indarrean dago eta ondorioak ditu bete-betean....

2.- **Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusian**:Itsaso udalerririk gisa Estatuko Administrazio Orokorren Toki Entitateen Erregistroan inskribatzeko eskaera ukatu zen. Une honetan, Estatuko Administrazioak demandari erantzuteko izapidean aurkitzen da...

Argitu behar da, Estatuko Administrazio Orokorren Toki Entitateen Erregistroan inskribatu ala ez, Itsaso udalerririk eratuta dagoela eta udalerririk dela. Jakina

da inskripzio horrek, edo zehazki, ez inskribatzeak eragin praktikoak dituela, besteak beste: udal erroldarik ez edukitzea, ezta ondorioz hautesle erroldarik ere; erregistro zibilik ez edukitzea....

Horiek denak hala izanik ere, Itsaso eta Ezkio udalerrri bereziak dira eta hortaz, udalerrri berezi gisa tratatu behar ditu Aldundiak bere eskumeneko gaietan eta bere esku dagoen neurrian.

Hori dela eta, Aldundia honako urrats hauek ematen ari da:


- Katastroaren banatzea
- Seinalitika errepideetan
- Hitzarmena Itsasoko Udalarekin (dokumentuen erregistroa)

3.- Herrian konektibitatea hobetzeko dauden aukera desberdinak

- TALAIA enpresaren eskaintza aipatu da. Uhinak antena bitartez iritsiko lirateke proposamen honetan. Inbertsio bat egin beharko litzateke herri bezala eta partikular bezala ere.
- Movistar-entzat lan egiten duen enpresa baten bidez iritsi zaigu bigarren proposamena. Proiektu honetan zuntz optikoa proposatzen da, kablea Telefonikak bere garaian erabili zituen posteetan pasatuko litzatekeelarik eta etxebizitzetara dohain izango litzatekeelarik. Herrigunera datorren linea nagusia 3-4 hilabete jar dezakete, eta 6-9 hilabeteetan, herri osora.
- Herritarren beharrak ezagutzeko helburuarekin, inkesta bat pasako da eta diagnostia egingo da.


4.- Itsasoko Udaletxerako Foru Aldundiarekin batera proposatutako aurreproiektua

Aldundiko arkitektoarekin batera landutako proiektuak: Udalaren sarreran irisgarritasun bermea, etxebizitza eta udalaren sarrera desberdindua, teilatua eta barruko eskailera.



Itsasoko udaletxea eta ingurumen berriko banak
1. Fasea: Irteeraren proiektuaren
Urbanizazioa


Eskaila:
Eskala: 1/100



AA'- azalera
Eskala: 1/75

Itsasoko udaletxea eta ingurumen berriko banak
2. Fasea: Barruko espazioaren
arrazoiak

argitaratzea



1. udalako ofizienta
2. udalaren sarrera
Eskala: 1/100

Itsasoko udaletxea eta ingurumen berriko banak
3. Fasea: Barruko espazioaren
arrazoiak

5.- Itsaso.eus web orriaren

Web orriaren edukiak azaldu dira eta bakoitzean zer aurki daitekeen ere erakutsi da. Epe laburrean argitaratzeko moduan izango da ondorengo helbidean: www.itsaso.eus

6.- Azaroaren 18an burutuko dugun auzolanerako lan-proposamenen azalpena eta hurrengoetarako aurreikusten diren zereginen zerrendatzea

- Alegian eta Mandubian garbiguneak margotu
- Elizaren azpialdean dagoen lur muturra jorratu, garbitu eta lur berriarekin atondu lorategi bihurtzeko
- Herri bideak txukuntzen hasi (Epelde errekarara doan Itsasotik Alegiarako bidea)
- Artxibo historikoa Itsasora ekarri

Ondoren, aurrerantzean herri mailan zer egitea gustatuko litzaigukeen jakiteko, talde dinamika bat jarri da martxan. 5-6 kideetako taldeetan banatu eta behar hauek aipatu dira:

- Gazte lokala hobetu (Itsason eta Alegin): hezetasun arazoak
- Gazte lokalaren aurreko plaza irisgarri egin
- Alegiko graffitiak ezabatu eta mural bat osatu
- Presa aldera doan bidegorria lixatu
- Beittiko ur hodia lurperatu
- Suteen aurkako mangerak erabilgarri jarri.
- Zaborrontziak jarri
- Ostatuko komunean umeak aldatzeko tokia egokitu
- Plazako eta lorategiko ezpelak moztu.
- Plazako lorategia eta eskaileratik behera doana apaindu.
- Oria kaleko bukaeran dagoen bidea garbitu.
- Jauregigoeneko kruzean Itsasorako seinalea jarri
- Herri gunean ariketa fisikoa egiteko tresnak jarri. Non?
- Apaizetxeko armairua errestauratu
- Herri bideak markatu
- San Lorentzon mahaiak, aulkiak eta iturri bat jarri
- Herri sarrera (Alegin) txukundu (etxeetako paretak, hesiak,...)
- Herri bide zaharrak berreskuratu (Alegitik Itsasorako, Goititik Egizabalera doana, Atinbarrenatik Erreztira doan bidea, Goititik Usabiagarako estrada (Kamiora doana) garbitu, Urbeltz ingurua txukundu,...)
- Itsasoko iturburua garbitu eta egoteko leku bihurtu
- Kanposantuan zaborrak ez botata uzteko kartela jarri, kanposantura doan bideko eskailerak garbitu, barandaren eskudeia margotu.
- Herriko ondare txikia erreperatu (askak, iturriak, karobiak, errotak, ...) eta seinaleekin adierazi
- Herri inguruko paseo laburrak identifikatu eta paperean zein web orrian adierazi
- Baserrietan dauden erreminten katalogoa eta inbentarioa egin.

7.- Beste ekimen batzuen aurreikuspena eta norberak lekarkeena

Udaletxea Itsason martxan jartzeko administrariaren kontratazioa: Aurtengo urtea amaitu baino lehen egin nahi da. Komunikazio batzordean landuko da datorren astean.

Garbitzailearen kontratazioa: Aurrerantzean Udala, ludoteka,... eta abarren garbiketa lanak egiteko ere deialdi publiko bat aterako da.

Zaborren kudeaketa: Orain arte egin den zaborren pisatze lanak Ezkioko zaborrarekin batera egin dira eta emaitzak oso kaxkarrak dira. Grafikoa erakutsi da eta honen inguruko lanketa bat herri mailan egitea planteatzen da.

Biolur-en ate irekien jai eguna Itsason, urriaren 28 eta 29an: Egitarauaren berri eman da.

Azaroaren 11an, larunbata, erretaularen bisita gidatuak (andamiotatik): Erretaula in situ ikusteko beste aukera bat egongo da eta izena emateko aukera irekiko da. Behin bisitarien kopurua ezagutzen denean, talde txikiak antolatuko dira eta horren arabera ordutegia antolatuko da.

Jubilatuen bazkaria Itsason, (azaroaren 19an): Data egokia iruditu da.

Ibur hipika : Kirol jardueren barruan, herritarrentzako Ibur hipikaren eskaintza zabalduko du Udalak

